


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2563

AGINDUA, 2008ko apirilaren 2koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena; honen bidez, beste epe bat ezartzen da, hasierako onespina eman zaion kantauriar isurialdeko ibai eta errekaen ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. Aldaketa jendaurrean jarri eta herri-administrazioei entzunaldia eskaintzeko.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 10eko Aginduz, hasierako onespina eman zitzaion Kantauriar Isurialdeko Ibai eta Errekastoen Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketari, eta aldi baterako jendaurrean jartzea erabaki zen, aldaketa horren dosierra eta dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterketa; halaber, jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, interesa duten lurraldeko herri-administrazio guztiei entzunaldia eskaintzea erabaki zen, beren alegazioak, oharrak eta iradokizunak egin ahal izateko.

Erabaki hori 2008ko urtarrilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (14. zenbakia) eta Autonomia Erkidegokoan zirkulazio handienekoak diren hiru egunkarrietan argitaratu zen.

Izapide horiek betetzeko ezarritako epea 2008ko martxoaren 13an amaitu zen. Horien bidez, herritarren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

2563

ORDEN de 2 de abril de 2008, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se establece un nuevo plazo de información pública y audiencia de las administraciones públicas, de la 1.ª Modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica, inicialmente aprobada.

Por Orden de 10 de diciembre de 2007, de esta Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se aprobó inicialmente la 1.ª modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica, y se acordó someter el expediente de dicha modificación junto con su correspondiente estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental a un período de información pública; asimismo, y con carácter simultáneo a dicho trámite de información pública, se acordó dar audiencia a todas las Administraciones Públicas Territoriales interesadas, para que pudiesen formular sus alegaciones, observaciones y sugerencias.

Dicho acuerdo ha sido objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de 21 de enero de 2008 (BOPV n.º 14) y en tres periódicos de los de mayor circulación en la Comunidad Autónoma.

El plazo establecido para la cumplimentación de dichos trámites expiró el pasado día 13 de marzo de 2008,

eta interesa duten erakunde publiko eta pribatuen parte-hartzea handiagoa izatea lortu nahi da; hortaz, jendaurreko informazioaren eta herri-administrazioen entzunaldiaren faseetarako, hilabeteko beste epe bat ezartzea egokia dela pentsatu da.

2007ko abenduaren 10ean hartutako aurreko aginduari eman zitzaion publizitate bera emango zaio aginduari honi.

Horregatik, izapide horiek bideratzea Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren eskumenekoa izanik, honako hau

XEDATU DUT:

Hilabeteko beste epe bat ezartzea, Kantauriar Isurialdeko Ibai eta Errekastoen Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketaren jendaurreko informazioaren eta interesa duten herri-administrazioen entzunaldiaren izapideak egiteko. Epe hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen den egunean hasiko da.

Epe horretan, Plana aldatzeko agiri teknikoa interesdunen eskura egongo da, nahi duenak azter dezan, bai web orrian (www.euskadi.net) eta bai leku hauetan:

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Gipuzkoako Lurralde Bulegoa. Begoña etxea. Kristina infantaren kalea 11 (Ondarreta) - 20008 Donostia-San Sebastián.

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Bizkaiko Lurralde Bulegoa. Ibañez de Bilbao kalea 28, 8. solairua - 48009 Bilbao.

Aipatutako aldian, lurraldeko herri-administrazioek, elkarteek, partikularrek eta interesa duten korporazioek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, plan-aldaketa horren edukiaren gainean.

Erabaki honen aurka ezin da helegiterik aurkeztu, Kantauriar Isurialdeko Ibai eta Errekastoen Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketaren behin betiko onespeneraren prozeduraren barruko egin-tza-izapidea delako.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 2a.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

y como quiera que a través de los mismos se trata de hacer efectiva una mayor participación ciudadana y de las Entidades públicas y privadas interesadas, se estima oportuno establecer un nuevo plazo de un mes para las fases de información pública y audiencia de las Administraciones Públicas.

La presente Orden será objeto de la misma publicidad otorgada a la primitiva Orden adoptada el 10 de diciembre de 2007.

Por ello y siendo su tramitación competencia de esta Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,

DISPONGO:

Establecer un nuevo plazo de un mes para los trámites de información pública y audiencia de las Administraciones Públicas interesadas de la 1.ª modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica. Dicho plazo se comenzará a contar a partir de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Durante el referido plazo, el documento técnico de modificación del Plan estará a disposición de los interesados para su examen, tanto en la página web www.euskadi.net como en los siguientes lugares:

– Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. Dirección de Ordenación del Territorio. C/ Donostia-San Sebastián ,1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Medio ambiente y Ordenación del Territorio. Villa Begoña. C/ Infanta Cristina, 11 (Ondarreta). 20008 Donostia-San Sebastián.

– Oficina Territorial de Bizkaia del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. C/ Ibañez de Bilbao 28, 8.ª Planta. 48009 Bilbao.

En el periodo mencionado, las Administraciones Públicas Territoriales, asociaciones, particulares y corporaciones interesadas podrán presentar las alegaciones que estimen oportunas sobre el contenido de la referida modificación del Plan.

El presente Acuerdo no es susceptible de recurso al constituir un acto de trámite dentro del procedimiento de aprobación definitiva de la 1.ª Modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2008.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.